

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Tonpoi inguruan Udalaren jabetzakoak diran lurzatiak ikertzeko zabaldutako espedientea Ebaztea.**

2022ko urtarrilaren 28an Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren iragarki hau argitaratzen da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean:

Xedea

Tonpoi inguruan Udalaren jabetzakoak diran lurzatiak ikertzeko zabaldutako espedientea ebaztea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2021eko martxoaren 26an, Udal Osoko Bilkureak, Tonpoi inguruan Udalaren jabetzakoak diran lurzatiak ikertzeko espedientea zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Entzunaldiaren iragarkia 2021eko apirilaren 12an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Hirugarrena: 2021eko apirilaren 12tik apirilaren 30era Tonpoi inguruko partzelen jabetasunaren inguruko planoak egon zan ikusgai Udaleko iragarki taulan.

Laugarrena: Horren barri emon zan web orriladeko iragarki taula bidez, herri guztian zabaldutako bando bidez eta 2021eko apirilaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarki bidez.

Bosgarrena: Erakustaldi publikoko epea amaitu ondoren, alegazinoak aurkezteko hilaletako epea zabaldu zan, maiatzaren 1etik ekainaren 1era.

Seigarrena: 2021eko apirilaren 14an alegazinoak aurketu ebazan IHG jaunak.

Zazpigarrena: 2021eko maiatzaren 6an alegazinoak aurketu ebazan ARZ andreak.

Zortzigarrena: 2021eko maiatzaren 20an alegazinoak aurketu ebazan JRU jaunak.

Bederatzigarrena: 2021eko apirilaren 28an alegazinoak aurketu ebazan JAM jaunak.

Hamargarrena: Egondako alegazinoen inguruko ikerketa teknikoa egiteko kontratua INFOTOP enpresari esleitzea erabagi zan.

Hamaikagarrena: Egondako alegazinoen inguruko txostenak aurkeztu dauz INFOTOP enpresek Bermeoko Udalean.

Hamabigarrena: 2021eko azaroaren 30ean urigintza saileko teknikariak erabagi proposamena egin eban.

Hamahirugarrena: 2021eko abenduaren 27an idazkari akzidentalak txostena egin eban.

Hamalaugarrena: 2021eko abenduaren 28an alegazinoak aurkeztutako interesdunei erabagi proposamenaren barri eta 10 eguneko alegazino epea emon jaken. Emondako epean ez da alegazinoarik jaso.

Argudioak

Lehenengoa: INFOTOP enpresearen 2021eko urriaren 15eko, 18ko, 19ko eta 28ko txostenak (I. II. III. eta IV. eranskinak)

Bigarrena: Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauan 1372/1986 EDko, 17-21 eta 44-55 artikulua.

Hirugarrena: Espedientea ebazteko ahalmena Osoko Bilkureari jagoko, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauan 1372/1986 EDko 34. artikulua araber.

**Erabagia**

Guzti hori dala eta, aho batez, honako hau erabagi da:

Lehenengoa: INFOTOP enpresek emondako txostenen arabera, alegazio honeek onartzea:

- IHG jaunaren alegazioa, 91 A partzelaren inguruan. Alegazioa partzialki onartzen da eta 91 A partzelaren zati bat pribatu dala onartzen da.
- ARZ andrearen alegazioa, 388 partzelaren ingurukoa. Alegazioa partzialki onartzen da eta 388 A partzela be bere jabetzakoa dala onartzen da.
- JRU jaunaren alegazioa, 83 partzelaren ingurukoa. Alegazioa onartzen da eta 83 partzela bere jabetzakoa dala onartzen da.
- JAM jaunaren alegazioa partzialki onartzea, 105-106 eta 107 partzelen ingurukoa eta 107 partzelako zati bat bere jabetzakoa dala onartzen da.

Bigarrena: Tonpoi inguruan Udal jabetzakoak diren partzelen zerrenda V. eranskinean agertzen dan moduan onartzea.

Hirugarrena: Udal inbentarioan egokiak diran aldaketak egiteko agindua emotea Idazkaritza sailari.

Laugarrena: Erabagia interesduneri eta Idazkaritza sailari jakinarazotea.

Bosgarrena: Erabagia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jagokozan ondorioetarako



V. ERANSKINA

TONPOI INGURUAN UDALAREN JABETZAKOAK DIRAN LURZATIEN ZERRENDEA

Bizkaiko Foru Aldundiko katastroko lursail honeek:

- 2. poligonoko 28 lursaila
- 2. poligonoko 30 lursaila
- 2. poligonoko 31 lursaila
- 2. poligonoko 32 lursaila
- 2. poligonoko 33 lursaila
- 2. poligonoko 34 lursaila
- 2. poligonoko 62 lursaila
- 2. poligonoko 64 lursaila
- 2. poligonoko 68 lursaila
- 2. poligonoko 78 lursaila
- 2. poligonoko 81A lursaila
- 2. poligonoko 630 lursaila
- 2. poligonoko 86A lursaila
- 2. poligonoko 88 lursaila
- 2. poligonoko 89A lursaila
- 2. poligonoko 90 lursaila
- 2. poligonoko 91A lursaila
- 2. poligonoko 92bisA lursaila
- 2. poligonoko 92A lursaila
- 2. poligonoko 94 lursaila
- 2. poligonoko 95 lursaila
- 2. poligonoko 97 lursaila
- 2. poligonoko 98P lursaila
- 2. poligonoko 100P lursaila
- 2. poligonoko 101 lursaila
- 2. poligonoko 400 lursaila
- 2. poligonoko 103 lursaila
- 2. poligonoko 104 lursaila
- 2. poligonoko 105 lursaila
- 2. poligonoko 106 lursaila
- 2. poligonoko 107A lursaila
- 2. poligonoko 109 lursaila
- 2. poligonoko 110 lursaila
- 2. poligonoko 404 lursaila
- 2. poligonoko 405 lursaila
- 2. poligonoko 406 lursaila
- 2. poligonoko 612 lursaila
- 2. poligonoko 616 lursaila
- 2. poligonoko 618 lursaila
- 2. poligonoko 621 lursaila

Bermeon, 2022ko urtarrilaren 31n.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense